



LEZEAREN OROIMENA

- Mintzaldi zikloa Sarako lezeetan -

Arbasoen gizarte-bizitza, naturarekin elkarrekintza, ohituren eta sinesmenen transmisioa... gure iragana, gure ondarea eta gure kulturaren sustraien ezagutzeak gure egungo gizarte-bizitzaren oinarriak hobeki ulertzeko aukera ematen digu.

Mintzaldi ziklo bat abiatu nahi izan dugu, denok gure historiaren zatiak ezagutu edo berraurkitu aukera izan dezaten. Euskaraz edo frantsesez izanen dira (hizlarien arabera), urririk eta guztientzako idekiak.

Hilean behin, adituak edo/eta sutsuak Sarako lezeetara hurbilduko dira euren gai gustukoenaren inguruko aurkikuntzak eta ezagutzak partekatzerara.

Zergatik Sarako lezeetan ?

Milaka urtez, Sarako Lezea gure arbasoen gizarte-bizitzaren lekuko eta zenbaitetan eragile izan da. Zibilizazio baten sortzea, aldatzea eta inguruko naturarekin bat egitea ikusi du. Baita ere gure arbasoek nola espazio naturala baliatzen zuten bizitzeko, jateko, nekazaritzan, artzaintzan, eta nola gizarte bizitza zabaldu zuten. Bai eta nola sinesmenak, mitoak eta erritoak, gizakiaren eta naturaren arteko loturatik sortu eta zabaldu ziren, iragan ez hain urrunera arte...

Hori guztia ikusi du Lezeak, baina Lezeak ez du hitz egiten... Zorionez, gai guzti hauetan historialari, ikertzaile, zientzialari eta sutsu ainitz interesatu dira eta Sarako inguruetan ikerketa oso zabalak egin dituzte.

Horregatik, Sarako lezeetan topaketa eta hitzaldi sorta bat antolatu nahi izan dugu adituekin euren ezagutza azalduz, jende gehienek ulertzeko gisa, bakoitzak bere arbasoen historia eta bizimodua ezagutzeko, bere ondarea berreskuratzeke eta kultura aberasteko.

Topaketak ostiraletan izanen dira, 19:15etan, Sarako lezeetan, urririk eta guztientzako idekiak.

Gaualdi goxoak partekatzearen eta ezagutzaren transmisioaren seinalepean, hurrupaldi partekatu batekin mintzaldien ondotik !

2022ko lehenengo 3 mintzaldiak hauek izanen dira :



2022ko Apirila

GAUEKO IZAKIAK EUSKAL MITOLOGIAN

Claude LABAT-ek aurkezturik

Noiz : Apirilaren 22an, ostiralean, 19:15etan.

Non : Sarako lezeetan.

Hizkuntza : frantsesa.

Claude LABAT, idazle, historialari, ikertzaile eta euskal mitologian aditua, gauaren, argiaren eta iluntasunaren pertzepzioaz eta historian izan duen bilakaeraz mintzatu da.

Zein zen mitoen lekua eta ze lotura zuten iluntasunarekin eta argiarekin ?

Gai hori ontsa ulertzeko, Sarako lezearen iluntasunean murgilduko gara, leizeko ilunpe eta barruko hotsek ematen dituen sentsazioak sentitzeko...

2022ko Maiatza

SARAKO LEZEEN INGURUKO MONUMENTU

PROTOHISTORIKOAK, Blot doktorearen omenez.

Paul BADIOLAK (Jakintza) aurkezturik

Noiz : Maiatzaren 20an, ostiralean, 19:15etan.

Non : Sarako lezeetan.

Hizkuntza : frantsesa.

Goazen denboran atzera eta deskubri ditzagun antzinako artzainen bizimodua erakusten diguten mendiko harri batzuk.

Inoiz topatu al duzu lurretik ateratzen diren arrokkak gure mendietan ibiltzen ari zarelarik ? Batzuetan, ahaztutako monumentu protohistorikoak dira... harri horiek identifikatu eta haien erabiltzea ulertzeko lanean aritu dira gizon bakar batzuk. Haietako batek, Paul BADIOLA jaunak, Sarako lezeen inguruan kokatutako monumentu protohistorikoak aurkeztuko eta azalduko dizkigu gaualdi honetan, Sarako lezeetako parke megalitikoaren (BLOT doktore famatua eraikia) erreproduzioetan bermatuz.



2022ko Ekaina



MUGA, KONTRABANDOA ETA BENTAK

Guy LALANNEk (Jakintza) aurkezturik

Noiz : Ekainaren 24an, ostiralean, 19:15etan.

Non : Sarako lezeetan.

Hizkuntza : frantsesa.

Denok ezagutzen ditugu gaur egungo bentak, batzuetan jatetxe edo benetako supermerkatu bihurtuak...

Mugaren ondoan eraikitako baserri zahar haiek trukerako eta hornikuntzarako lekuak izan ziren, eta garai bateko kontrabandoko lekuak ere bai.

Iragan den garai hori ez dago hain urrun eta gaur egun ere entzun daitezke gure inguruan gaueko lanari buruzko lekukotasunak eta anekdotak, batez ere Xareta mugaz gaindiko lurraldean.

Guy LALANNE jauna bere ezagutzak eta gertaldiak partekatuzera etorriko da, aduana eta kontrabandisten jokoari buruz, baita ere mugaren rolaz eta benten bilakaeraz.

HARREMANETAN SARTZEKO :

- François POUYET, Sarako lezeen zuzendaria :
Tel : +33 6 81 33 51 60 - Eposta : sarakolezea@gmail.com
- Argitxu ACHERITOGARAY, komunikazio digitala :
Tel : +33 6 70 08 19 52 - Eposta : mail@argizar.com